

# Poema filosófico manuscrito del siglo XIX

TXOMIN PEILLEN

**E**n el manuscrito número 153 de la «Bibliothèque Nationale» de París, se puede leer por un lado en francés *Tableau des Moeurs des Basques* por el canónigo Cesar Duvoisin, hermano del escritor euskérico Jean-Pierre Duvoisin; por el otro lado a la inversa se puede leer una miscelánea de poemas y cantos en euskera. La mayoría de estos textos llevan la indicación del autor, del dialecto, de la tragedia en que se cantaba, excepto uno. Este anónimo puede ser obra del canónigo Duvoisin porque refleja el poema filosófico las ideas del clérigo en cuanto a la filosofía romántica y algo pagana de su época.

Las ideas de Cesar Duvoisin en su «Tratado de las costumbres de los vascos» son las mismas que en el poema: se deben olvidar las penas, huir de las desgracias, buscar la paz, los placeres pacíficos, contemplar la naturaleza. De no ser del canónigo el poema, podría pertenecer a la obra de Gracián Adema «Zaldubi», o Batista Ducos, poetas y amigos Laburdinos del autor del Tratado.

El poema es un modelo de «pureza sin purismo» en el idioma y quizá una de las últimas flores del Laburdino clásico, tan elegante como el primitivo axulariano y más cerca de nosotros por el pensamiento.

A continuación hemos compuesto un vocabulario de psicología con cuarenta y dos palabras; al comparar con la enciclopedia-diccionario publicado por U.Z.E.I. nos damos cuenta que, únicamente, nueve de aquellas palabras figuran en el diccionario moderno, lo que nos deja suponer que la psicología es diferente para el científico y para el escritor o acaso que desde 150 años han cambiado mucho los campos de investigación de esta ciencia.

## EPITRE (Epístola)

Zer da gure bizia, adiskide maitea?  
*Iragaitza* labur bat *nahigabez* bethea.  
Oi! zenbat *atsekabe*, gure *hara-hunetan*  
zenbat *kirets*, *bihotz-min*, *goitibeheitietan*?  
Ezagun, burhasoak, haurrideak utzirik  
Itxasoko *beldurrak*, *belkaitzak* ahantzirik,  
*peskizak* baderama untzitan mariñela,

ustez aberasteko urrun gan behar dela.  
 Zenbat gerla biztu du *ontasun egarriak!*  
 Zenbat eman ez daiku *ondiko lazgarriak!*  
 Oi gizona! hihaurek hire *bizi* laburra  
 bethi *kharasten* duk, ez deia bada lurra  
 berenez aski *latza?* hanbat *bekaizkeriez*  
 hanbat *asmu galgarri*, hanbat *gaixtakeriez*  
 gogorrago oraiño hihaurek egin gabe?  
 Eta bizkitartean ez haiz *bada herabe*  
 hire *atseginentzat* egiteko ehun laster  
 gaztelu *super* hori norentzat egin duk?

Herio beltzak ez dik ez *urrikalmendurik*  
 ez aberatsen *gupida*, *axola* sobraturik!  
 Bai *orhoitzen* bagina zein *iraungikor* diren,  
 hemengo *izaiteak* ez ginduke bizturen  
*eskatima* gerlarik: bake *maitagarria*  
 gizonarentzat laite bizi *gozagarria*.  
*Ibizin nabilarik udan goiz aldeari*  
*bozturik* gelditu naiz xorien kantuari,  
*gogoetan egon* naiz hekien *atseginez*,  
*urrikalmendu* nuen, munduko *dolumenez*.  
 Baldin gizona balitz *zuhurtziaren* jabe,  
*kimeretarik* urrun *berrakunderik* gabe,  
 beren ikus lezake bertze *gozorik* dela  
 bai eta *berma* laite bizitzera bertzela.  
 Bainan ez! *Zoratzen* du gizon *dohakabea*,  
 guk zer eginen dugu, adiskide maitea?  
 Nihor *zuhurtziaren* amodio duenik  
 edireiten badugu, elkargana lehenik  
 guziak bil gaitezen; utz ditzagun *zoroak*,  
 goazen *preza* ditzagun egiazko *gozoak*.

*Olerki hau Cesar Duvoisin apezaren kantu ta olerki bilduma batetik atera dugu. Bilduma osoak argitaratzea merezi luke orainarte Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan 153.zenbakiaren pean manuskrituen artean argitara gabea egon da. Gaur hautatu dugun olerkia, egile izenik gabe, euskalki izenik gabe datorren gutietarik bat da, baliman biltzaileak berak egina. Esku idazki berean, eta alderantziz frantsesez idatzitako filosofia saioa «Tableau des Moeurs des Basques» dator; nahiz frantsesezkoan nahiz olerki huntan ideia berdinak ikusten ditugu azaltzen.*

Oraingoan, olerki hau berezi dut bere idealismua gatik eta bere gogoe-tak ezagutarazteko egileak erabiltzen duen hizkuntza oso aberatsa baita eta gure egunetako idazle guzientzat eredu ona, hor daukagula, uste baitut. Ondotik ematen dudan hiztegitxo hori UZEI -ek berriki argitaratuarekin alderatu dut.

Asmu: Uzei-ek asmo, *intención*, *intention*.

Atsegin: U.ek, *placer*, *plaisir*.

- Atsekabe: U.ek ez du ematen, hemen erdarazko *sinsabor*, frantsesezko *déboire* bezala dago; beharbada hiztegilentzat ez da aski jakintzazko hitza.
- Axola: Hemen, erdarazko *cuidado*, eta frantsesezko *souci*. U.ek ez du *axolagabe* baizik ematen.
- Bekaizkeria: Hemen, erdarazko *envidia*, frantsesezko *envie* U.ek ez du ematen, moral hutsa delako ustetan?
- Beldur: erdarazko, *alarma*, frantsesezko *alarme*. U.ek ematen du.
- Bermatu: erdarazko *esforzarse en*, frantsesezko *s'appliquer à* UZEI-ek ematen du.
- Bihotzmin: erdarazko *pena*, frantsesezko *peine de coeur*. U.ek ez du ematen, nahiz ez den *bihotzekomin*, «cardiopathie» hitzarekin nahasten.
- Bizi: psikologiaren aldetik, bai eta bertsoaren gatik, psikologiaren aldetik *bizi gozagarria*, ere *bizitze gozagarria* -ren orde.
- Boztu: erdarazko *alegrarse*, frantsesezko *se réjouir*. U.ek ez du ez *poztu* ez *boztu* ematen, beharbada hitz horrek ez duelakotz eztabaidarik sortzen.
- Dohakabe: erdarazko *desdichado*, frantsesezko *malheureux*. U.ek ez du ematen, arruntegia ote?
- Dolumen: *dolamen* behar luke, gaztelaniazko *lamento*, frantsesezko *lamentation*. U.ek ez du ematen.
- Eskatima: gaztelaniazko *odio*, frantsesezko *haine*. U.ek, *gorroto*.
- Gaixtakeria: gaztelaniaz *maldad*, frantsesez *méchanceté*, moral ustekizuna ote? Ez da UZEI-en irakurtzen.
- Galgarri: *pernicioso*, gaztelaniaz, *pernicieux* frantsesez (Ez da Uzei-en irakurtzen) *asmu galgarri*, intenzio txarra, adierazteko tankera ederra.
- Gogoetan egon: gaztelaniazko *reflexionar*, frantsesezko, *réfléchir*; Uzei-ek *gogoeta*, reflexión, réflexion.
- Goitibeheiti: gaztelaniaz *álea*, frantsesez *aléa*; Uzei-ek ez du ez hitz hau, ez *gorabehera* ematen, nahiz *aleatorio* bezala ausaz ematen duen.
- Gozagarri: Duvoisin-ek *avec douceur* itzultzen du, *con dulzura*, gaztelaniaz; iparraldean halaxe erabiltzen dugu, baina Uzei-ek ez dakar, beharbada bestaldekoentzat, *consuelo* esan nahi baitu.
- Gozo: Duvoisin-ek «douceur» bezala darabil *egiazko gozoak* esaeran Uzei-ek dakar. Gaztelaniaz ere badago *gozo* = *alegria*, baina euskaraz ez du erran nahi berdina, *goce*, *jaouissance*, konotazioak ditu.
- Gupida: gaztelaniaz *compasión*, frantsesez *pitié*. Uzeiek ez du ematen ez eta orain erabiltzen dugun *urriki* hitz euskaldunagoa.
- Helkaintz: hemen Duvoisin-ek «danger» itzultzen du. Gure itzulzaile anaiak Duvoisin kapitainak «infortune» «infortunio» bezala zehatzkiago erabiltzen du.
- Herabe: gaztelaniaz *tímido*, frantsesez *timide*. Hitz horrek erdarazkoak baino semantika alor handiagoa du. Uzei-ek ematen du. Duvoisin-ek urrundik itzultzen du, ez *haiz bada herabe* «cependant... tu ne t'épargnes pas».
- Herrakunde: «odio» «haine», Lapurdin; bestalde *biguin*, *hügün* herroan egin hitzak erabiltzen ditugu. Uzei-ek *gorroto* ematen du.

Iragaitza: «pasaje» «passage».

Iraungikor: «extinguible»; métaphore pour «mortel»

Izaite: «existencia» «existence». Uzei-ek ez du ematen, beharbada filosofia orokorrean eskeintzeko.

Karats: *bizia karasten* «remplir la vie d'amertume» itzulia.

Kimera: Lapurdierazko hitz hau, gaztelaniazko «quimera» da, frantsesezko «provocation».

Kirets: hemen *karats* bezala «amargura» «amertume».

Latz: hemen «ingrata» «ingrate» bezala erabilia. Uzei-ek ez du ematen, baliman moral erran nahiaren gatik.

Lazgarri: *ondiko lazgarriak* «malheur épouvantable», ongi itzulia.

Maitagarri: «amable» «aimable». Uzei-ek ez du ematen.

Nahigabe: «contrariété» itzulia. Uzei-ek *involuntario*, *involontaire*.

Ondiko: «desgracia» «malheur», Uzei-ek ez du ez hitz hori ez eta besterik ematen adieraziarekin.

Ontasun: aberastasun.

Orhoitu: «acordarse» «se souvenir». Uzei-ek *oroimen*, *oroitze* eta...

Preza: «apreciar» «apprécier».

Peskiza: Duvoisin-ek «convoitise» itzultzen du; *peskizan* «zure ardurapean, «à voz soins, à votre disposition» dela uste dugu.

Urrikalmendu: ikus *urriki* eta *gupida*.

Zoratzen: burua galtzen apur batez. Uzeiek zorabio «vertige», vertigo baiziz ez du ematen.

Zoro: «insensato» «insensé» ez du Uzei-ek ematen. n.

Berrogei ta bi hitz hauetatik Uzei-eko hiztegiak, bederatzi baizik ez ditu ematen, beharbada sendimenduen psikologia ez baitago modan, baliman hitz batzu moralarekin zerikusia baitute eta agian, atsekabe bekaizkeria, bihotzmin, dohakabe, gaixtakeria, gozo, izaite, karats; maitagarri, zoratzen eta zoro ez dira, denentzat, psikologia hitzak.

Filosofia olerki hunen ondotik frantses itzulpena dator; ez dut hemen emanen nere gaurko xedea ez baita frantsesari baina euskarari laguntzea, baina itzulpen horrek asko lagundu nau hiztegia egiten, nahiz ez den hitzez-hitzekoa beti.

